



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

GERNIKAKO ARBOLAREN OINORDEKO BATEN LANDAKETEA CIKAUTOXO KOOPERATIBAN, BERE 50. URTEURRENA DALA ETA

- **Ekitaldian, Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria egon da.**

(Berriatuan, 2021eko abenduaren 11n). Cikautox kooperatibak, Bizkaiko Lea Artibai eskualdeko erreferente industrialak, amaierea emon deutse zapatu honetan bere 50. urteurrenaren ospakizunei, Berriatuan Gernikako Arbolaren oinordekoa bat landatuta.

Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak eta Javier Príncipe konpainiako lehendakariak bota ditue lehenengo lur palakadak 10 urteko arbola gaztearen inguruan. Hemendik aurrera Magdalena auzoan, euskal kooperatibaren egoitza nagusia dagon lekuan, botako ditu zuztarrak. Ekitaldian enpresako beharginak eta senideak be egon dira. Ohikoa dan moduan, Otaduik Gernikako Arbolaren oinordekoa dala egiaztetan dauen agiria emon deutse.

Bizkaiko Legebatarreko lehendakaria pozik agertu da Mondragon Korporazioaren barruan dagon kooperatibak *“negu gogorretan sendo”* jardun dauelako mende erdian, Gernikako Arbolak egiten dauen moduan. Gure eskubide historikoak, euskal herriaren askatasuna eta pakea ordezkatzeez gain, haretza *“zuen modukoa da, 50 urtez sendo jarraitu dozuelako, jasaten ari garan krisi eta garai gogorak gorabehera. Bizkaian sustraiak bota dozuez, baina zuen adarrak arrakastaz ari zarie zabaltzen mundu osoan”*, nabarmendu dau Otaduik.

Cikautxok, Lea Artibaiko enpresa garrantzitsuenak, 240 milioi euro fakturretan ditu. 400 bazkide eta 2.500 behargin ditu, eta ekoizpenaren % 100 esportetan dau. Industrian merezimenduzko erregistroa lortu dau. Ekitaldi horregaz itxi ditu 50. urteurrenaren ospakizunak, Berriatuan, jardueria hasi eban leku berean. Enpresak Txekiar Errepublikan, Eslovakian, Errumanian, Estatu Batuetan, Mexikon, Txinan eta Indian ditu lantegiak, eta bere jardueria automobilgintzan, etxetresna elektrikoetan eta material elastomeroetan oinarritzen da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

PLANTACIÓN DE UN RETOÑO DEL ÁRBOL DE GERNIKA EN LA COOPERATIVA CIKAUTOXO POR SU 50 ANIVERSARIO

- **Al acto ha acudido la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui Biteri.**

(Berriatua, a 11 de diciembre de 2021). La cooperativa Cikautxo, un referente industrial en la comarca vizcaína de Lea Artibai, ha puesto este sábado el broche final a los actos de celebración por su 50 aniversario con la plantación de un retoño del Árbol de Gernika en sus instalaciones de Berriatua.

La presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui Biteri, y el presidente de la compañía, Javier Príncipe, han arrojado las primeras paladas de tierra al roble de 10 años que echará raíces a partir de ahora en el barrio Magdalena, donde se sitúa la sede principal de la cooperativa vasca. Al acto han asistido también personal de la empresa y familiares. Como es costumbre, Otadui ha entregado el certificado que acredita que el ejemplar es descendiente del Árbol de Gernika.

La Presidenta de la Cámara vizcaína se ha alegrado de que la cooperativa integrada en la Corporación Mondragón, cumpla medio siglo de actividad *“firme a los duros inviernos”*, como lo hace también el Árbol de Gernika. Además de representar nuestros derechos históricos, la libertad y la paz del pueblo vasco, el roble *“es como vosotros, que durante 50 años os habéis mantenido firmes a pesar de las crisis y los tiempos duros que estamos viviendo. Habéis echado raíces en Bizkaia, pero estáis expandiendo vuestras ramas por todo el mundo de manera exitosa”*, ha destacado Otadui.

La empresa Cikautxo, la más importante de la comarca de Lea Artibai, factura 240 millones de euros. Con 400 socios y 2.500 trabajadores exporta el 100 % de su producción y ha logrado un registro de mérito en la industria cerrando sus 50 años con este acto en sus instalaciones de Berriatua, donde inició su actividad. La firma cuenta con plantas repartidas por República Checa, Eslovaquia, Rumanía, Estados Unidos, México, así como China e India que centran su fabricación hacia los sectores de automoción, electrodoméstico y materiales elastómeros.